

4

LAPURRETA EGIN BADIZUTE

NOLA JOKATU EZBEHARRA GERTATUZ GERO?

Autoa lapurtzen badizute, egin behar duzun lehen gauza hurbilen duzun polizia-etxean **salaketa** jartzea da.

Zehaztu salaketan bertan Lagun Aro dela ibilgailuaren erakunde aseguratzailea. Eskatu **salaketaren kopia bat**.

Zure polizak lapurreta estaltzen badu, deitu **944 94 74 28** telefonora, ezbeharraren parte emateko.

Zure ibilgailua agertuko balitz, hori izaten da normalena, gure gain hartuko ditugu hirugarrenen esku egon den bitartean ibilgailuak izan dituen kalte guztiak.

Ibilgailua agertuko ez balitz, ibilgailuaren antzintasunaren araberako kalte-ordaina emango dizugu.



